

Prentsa oharra

Nota de prensa



Abian da Igeldoko Tokiko Entitate Txikiaren sorrerarako prozesua

Donostiako Udaleko talde politiko guztietako ordezkariak, udal Herri Partaidetzako teknikariak, Igeldoko Herri Kontseiluko kideak, eta Siadeco Ikerketa Elkarteko teknikariak osatu dute lantaldea

Lantalde bat eratu da Igeldoko Tokiko Entitate Txikia sortzeko Batzorde Sustatzailearen zehaztapena egiteko. 2021ean lanean hasiko den Batzorde Sustatzaile horren partaideak, zereginak, landuko dituen edukiak, funtzionamendua eta lan-plangintza adostea da, hain zuzen ere, orain martxan jarri den lantaldearen egitekoa. Lantaldeak azaroaren 12an egin du lehen bilera.

Lantaldearen osaerari dagokionez, lau hanka ditu: Donostiako Udaleko talde politiko guztietako ordezkariak, Igeldoko Herri Kontseiluko bost kide, Donostiako Udaleko Herri Partaidetza saileko teknikariak eta lantaldearen idazkaritzaz eta dinamizazioaz arduratzen den Siadeco Ikerketa Elkarteko teknikariak.

Lantaldearen sorrera lehen urratsa da Igeldoko Tokiko Entitate Txikia sortzera iristeko prozesuan. Zero fase bat, oinarriak jarriko dituen, 2/2003 Foru Arauaren III. Idazpuruaren markoaren baitan, Batzorde Sustatzaileak Igeldoko Tokiko Entitate Txikia sortzeko egin beharko duen lanak zimendu ahalik eta sendoenak izan ditzan.

Donostia, 2020ko azaroaren 23an